


Aretxabaleta,  
1992ko abuztuak 27

# Aretxagazeta



Andramaixak,  
zelako jaixak!



## Mus txapelketa

Jaiak Mus Txapelketarekin hasi ziren, arratsaldeko 4,30etan. 4retan bikoteek izena eman zuten eta 4,30etarako 52 bikote zeuden apuntata.

Azkenik, partaideak euren artean, eliminatuz joan ziren eta 1. gotik, 4. posturarte bikote

hauek geratu ziren: Irabazleak Jose-Santi; 2.ak Rodrigo- Modesto; 3.ak Domaika-San Migueleta 4.ak Piti -Txomin.

Bezperan egiten den Mus Txapelketa Andramaixetako ekintzarik zaharrena eta partaidea altuena daukana da.



• Hauek izan ziren Mus txapelketaren irabazleak eta finalistak. Aurpegiari igartzen zaie.



## Gaztetxoak ere jaietan partaide

Mus Txapelketarekin batera, Santa Kurtzeko frontoian marrazki lehiaketa eta kuadrilen arteko jokuak izan ziren gaztetxoendako.

Bolo txapelketan 26 gaztek hartu zuten parte. Irabazlea Josu Atxa izan zen, 2.a Aritz Berasaluze eta 3.a Borja Gairaitonandia.

Txantxikuan 26 partaide izan ziren. Lehenengoa Iñigo Urtubi, 2.a Garikoitz Garzia eta 3.a Mikel Roldan izan ziren.

Marrazki lehiaketan 32 gaztetxo izan genituen. Miren Igartua, Nerea Dobao eta Jon Rodriguez izan ziren lehenengo hiru irabazleak.



• Gaztetxoek ere estilo ederra daukate.

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Goretzi Ayastuy, **Argazkiak:** Josu Lazkano, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

## Jaien hasiera ofiziala



• Udaletxe aurrean ikurrinari agurra eta txupinazoa. Jende ugari elkartu zen bertan.



• Txalaparta ere gure artean euki genuen bezperan. Argazkian ikusten den moduan gogoz jo zuten txalaparta.



## Loiolako Herri irratiaren irratsaioa

Urteroko moduan, aurtan ere Loiolako Herri Irratia geurekin izan genuen, arratsaldeko 5etik aurrera. Irratsaioa udaletxetik izan zen zuzenean. Bertan, herriko

kuadrilak, U.D.A, txistulariak, Alkateordea, Kultura zinegotzia... izan genituen berba egiten.

Horren ostean, txupinazoa zuzen-zuzenean eman zuten irratiatik.

## Buruhandiak

Plazan mustxapelketa jokaketan zen bitartean, gaztettoek gogoz espero zuten momentua heldu zen. Buruhandiek eta erraldoiek urten zuten, dultzaineroek lagunduta. Gaztettoen artean urduritasuna.

Ausartenak plazan zeuden; baina beste batzuk Pagaldaiko bihurgunean ikusten ziren. 3 ordu laurdenetako saioa egin zuten. Erraldoiak, barriz, fandangoa eta arin-arina dantzatzen ibili ziren.

**G E'S**  
**M E**  
**G**  
**APAINDEGIA**


Durana, 40  
Tfnoa: 79 99 18

**HERRASTI**  
**GOZODENDA**

Durana Kalea  
**ARETXABALETA**

**LEIBAR**

**ARRAINDEGIA**



Mitarte Kalea, 1

Tfnoa: 77 13 79

**ARETXABALETA**



## Bolo txapelketa

Gabeko 11,30etan bolo txapelketa hasi zen. Bertan 50 partaide elkartziren. Bolaleku inguruan jende ugari izan zen txapelketa jarraitzen. Azkenean jendea nahiko gustora geratu zen ikusitakoaz.

Txapelketa bi bolatarara izan zen, nahiz eta orain arte 3 bolatarara izan.

Bola biak botata gero,

txapelduna Gorozabel izan zen 6 txirlorekin, 2.a Luis Iturbe 5 txirlorekin, 3.a Arana 4 txirlorekin, 4.a Bizente Eneko-tegi 4 txirlorekin eta 5.a Julian Elorza 4 txirlorekin.

Bi jubilatuk ere parte hartu zuten txapelketa horretan, Pedro Jose Etxeberriak eta Joakin Lizarraldeak.

## Plazako musika

Aurten plazako dantzak indartzeko eta jende gehiago erakartzeko formula barribat martxan jartzen saiatu zen Udala Kultura Batzordea. Horretarako plazako kioskoa Duranakalerabegira ipini zuten, horrela jende gehiago elkartuko

zelakoan. Ideia horrek ez zuen izan espero zen erantzuna eta datorren urterako beste zerbaitean pentsatu beharko da.

Beharbada, hori izan zen azken Andramarietako puntu baltz bakkarra, nahiz eta ziuurrenik irtenbidea euki.



• Aurreko artikuluarekin jarraituz, gogoratu dezagun banda etorri zenean, zelako jende gutxi elkartu zen.

### PAGALDAY

Opariak  
eta  
Lurrindegia

Durana 33 Tfnoa: 791014

### IOSU

URDAITEGIA

MITARTE, 1 eta  
GORBEA, 8

*Tronkilegi S.L.*



GOZODENDA  
eta IZOZKIDENDA

Otalora Kalea, 4  
Tfnoa: 77 13 57

### EXPRESS AKEITEGIA

Santa kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

### JAUREGI

OKINDEGIA

Otalora, 10

Aretxabaleta



Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria

### ZAPE

ARTEGINTZA

Lezama merkatal  
zentrua, 14



• Andra Mari, egun eguskitsu batek argitu zuen abuztuaren 15ean. Goizeko 10etan txistulariak diana joteari ekin zioten, goiztiarrenak ohetik jaiki eraziz.



## Meza Nagusia

Hamabietan puntuan, eliza jendez beteta zegoen. Bitartean, alkate soinuaren laguntzaz, Udal korporazioa Atxalbaltako banderarekin elizara sartu zen Andra Mari eguneko meza nagusia entzutera. Meza Aita Mikelek eman zuen Don Bitoriano Aranburu ordezkatzuz. Don Bitoriano ezin izan zuen parte hartu, bere anaia baten

heriotza zela eta (Goian Bego).

Atxalbaltako abesbatzak Casimiriren meza kantatu zuen. Elizan zegoen jendeak gorai patu egin zuen abesbatzaren lana; oso ondo kantatu zuten.

Andra Mari eguna egun haundia da Atxalbaltan, eta jendea oso dotore jantzita ikusten zen.



## Zumaiako banda

Txistularien ostean, Zumaiako bandak hartu zuen kaleak alaitzearen txanda. Pasakaile ederrak eskainiz, puntualenak elizaruntz gerturatzen ziren bitartean.

Jendeak elizatik urten zuenean, Zumaiako banda gertu zegoen kontzertua emateko. Hau interes handiarekin jarraitua izan zen leku desberdinetatik.

## OHARRA!!

Andra Mari bezperan urrezko eraztun bat topatu zen. Eraztuna seilo bat da. Eraztunaren jabea etorri dadila Aretxagazetak Kultur Etxean daukan bulegora.




Basabe poligonoa  
A - 15

Tfnoa: 79 34 28

## SAGASTA ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10



## DORLA, S.A

ARETXABAETA  
BASABE POLIGONOA, C.O.2.3  
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77



• Elizan zeudenek abesbatzaren interpretazioaz gozatzen zuten bitartean, gaztetxoek plazan tren elektrikoarekin, oihan animatuarekin, balearekin, monopatinarekin... jolasten zebiltzan.



## Suzko erruberak

Pelota partiduak bukatutakoan, ordu batzuk aldera, suzko erruberak hasi ziren. Jende ugari elkartu zen Zubiako

aparkalekuetan.

"Pirotecnia Zaragozana" k botatako suzkoak jendearen gus-tokoak izan ziren.



## Pelota partiduak

Andra Mari egunean kirolak ere bere tarteak euki zuen. Iturri Gorriko frontoan jende ugari elkartu zen pelota partiduak ikusteko asmoz. Pelotariak profesionalak ziren, eta horretaz aparte, korredoreak ere euki genituen.

Lehenengo partiduan Gorostidi eta Larrazabalek 22 - 20 irabazi zuten Manzisidor eta

Tolosa III.aren kontra. Partidua oso interesgarria izan zen azkenerarte.

Bigarren partiduan Lazkano eta Urretabizkaiak 22 - 14 irabazi zieten Elorza eta Zubizarretari. Lazkano partiduan jaun eta jabe izan genuen. Zubizarretak ezin izan zuen ezer egin Lazkanok eta Urretabizkaiak egindako lanarekin.



Bere Bezeroen Zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 beheak  
Tfnoa: 79 70 66

OILASKO - URDAITEGI - IZOZKIAK

IÑAKI

Gipuzkoako plaza, 1

Tfnoa: 77 02 99

ARETXABAleta



• Udaleko zinegotziak alkate-ordearekin, mezetatik urteteen. Benetan aurpegi serioak dituzte!



• Goizean, jendeak interes handiarekin entzun zuen Zumaiaiko bandaren kontzertua. Zumaiaiko bandak pieza hauek jo zituen: Las calles de Mi Villena, El último romántico, La gran via, La generala, Los rios.



• Arratsaldean, jendea gehiago animatu zen eta Zumaiaiko bandaren kontzertuan dantza egiteko aukera izan zuten.



• Gabetan askoz ere jende gehiago elkartzen zen kalean. Ambiente ederra zegoen tabernetan.



NOVEDADES

**FELI**

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
**ARETXABALETA**



**INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A**

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66



**OYAR**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 15 70



Autoservicio  
**ANGELINES**

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42



Anteron Txaparrotia  
Fernandon bigotia  
Felixen ahotsa  
Katxiton sonbrerua...



Ezauketan dozue?  
Jarraitu halaxe.



Maestro, ondo gabitzak?  
Bai, ondo ondo. Bizkai be pozik itxi dozue.



Buruhaundiak

**SEAT**  
Audi VW  
**GARAGE  
OSKAR**  
Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84

**Mobiliario**  
**ARENZA**  
ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA  
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA






Txuku-txuku  
Atxabaltako  
trena.  
Hurrengo  
geltokia San  
Migelak.



Utzi atseden bat hartzen!  
Argazkian Inma falta da. Nahia eta Ane birkiak  
20an jaio ziren. Zorionak.



Bakoitzak kapela bat eta uretako pistola bana,  
dio Anjelek.



- Oso txiste ona, ezta Imanol eta Aitor?  
- Jode, orain kontatu danoi.

**GARAGE  
"EDER"**

Karrozeria  
mekanikoa

IBARRA Z/B

Tfnoa: 79 16 66

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIK



**EROSKI**

Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.

DURANA ETA ARALAR KALEAN

Tfno: 79 16 05




## Txirrindulari lasterketa

Goizeko bederatzietarako, 110 txirrindulari (lehenengo eta bigarren mailako afizionatuak) Durana kalean genituen, lasterketa noiz hasiko zain. 54. Leintz Bailarako Itzulia Euskaldun sarirako puntuagarri izan zen.

Txirrindulariak guztira 105Km korritu behar izan zuten. Gatzaga birritan igo zuten. Bigarren igoaldian, Agustin Sagasta, Kaiku Gurelesakoa, martxa azkartu

eta bakarrik geratu zen. 30 Km falta arren, Agustinek ondo aguantatu zuen eta bakarrik agertu zen Atxabaltako helmugan. Tropela oso segundu gutxitara heldu zen eta esprina jokatu behar izan zuten bigarrena nor zen jakiteko.

Lasterketa horretan, Iñigo Roldan Atxabaltarra bostgarren geratu zen eta Kaiku Gurelesak irabazi zuen ekipoka.



## Pentaklona

Txirrindulari froga bukatuaz bat, Herriko plazan, aizkolarien proba berezia egin zen, Saralegi II eta Daniel Bizente aizkolarien artean.

Aizkora saioa, zabalera mozketara, luzerakoa, zintzilikazkoa eta esku bakarrez izan zen.

Proba entrenagarria izan zen eta orain arte Atxabaltara ekarri ez ziren modalitateak ikusteko aukera izan zuen plazan bildutako jendeak: zintzilikazkoa, esku bakarrekota eta abar...

Azkenean desafioaren irabazlea Saralegi II izan zen.

## Plazan parkea

Aurreko egunean moduan, bigarren egunean parkea euki zuten umeek plazan. Parkea, goiz guztian eta gabeko 8etatik 12ak arte egon zen.

Gurasoak, umeak

plazan zeuden bitartean lasaitasun ederra izan zuten. Gainera, bigarren egunean, gaberako zeren mekanikoa ipini zuten, eta umeak ez zirenak ere ondo pasatu zuten bertan.

**IZOTZ  
TABERNA**

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**ARLUTZ**


**AKEITEGIA**

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 32 34

*Sport*  
**SASIAIN**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 77 63

**ARETXABALETA**



## Joku herrikoiak

Arratsaldeko 6etan, Durana kalean joku desberdinak izan ziren. 5,30etarako gazte gehienak prest zeuden euren bizikletekin jokuetan parte hartzeko.

Lehenengo zintta karrera egin zen. Bertan, gazteak bizikleta eta makila baten laguntzaz zintta harapatu behar zuten. Sariak nahiko xebreak izan ziren.

Gero, zaku karrera izan

zen tanda bitan. Lehenengo 12 urterarteokendako eta gero 12 urtetik gorakoendako. Partaide guztiak jaso zituzten sariak.

Azkenik, pitxerren jokuak egin zen. Makila baten laguntzaz gazteak pitxerra apurtu behar zuten eta barruan opari desberdinak zituzten.

Ikusten zeudenez berrak ederrak egin zituzten.

## Pelota partidua

Bigarren pelota partidua ere ikusle askorekin jokatu zen Iturri-Gorri pilotalekuan.

Lehenengo pelota partidua Laka-Goñi eta Juan-txo-Zubizarretaren artekoa izan zen. Partidua entretengarria eta ikusgarria gertatu zen, batez ere 4 pelotariak aurreko kuadroetan izan zuten insistentziagatik.

Azkenean, Goñi eta Lakaren erreakzio baten ondorioz hauek irabazi zuten 22-20.

Bigarren partidua pelotari ezagunek jokatu zuten: Beristain-Esnaolak eta Ansola-Andueza III.ak. Ikusleek asko gozatu zuten Ansola eta batez ere Andueza III.ak kantxan zeukan kolokazioarekin.

Beristainek tantu gehienetan berak eraman zuen inizatiba; baina ezin zien beteranoei aurre egin. Azkenean 22-16 bukatu zen Ansola eta Andueza III.aren alde bukatu zen.

• Bigarren egunean, arratsaldean zehar Inkansables txarangak izan genuen kaleetan zehar.

Gabean, plazan Oskar eta Mikel trikitalariak izan genituen, nahiz eta jende gutxi elkartu Durana kalean eurekin dantzari.

• Gabean, pelota partiduak bukatu bezain laster, Herri bazkaria antolatzen duen taldea txahala erreten hasi zen. Taldea gau guztian bertan egon zen, eta hurrengo egunean oraindik lan gehiago zeukaten.

**GUREA**

TABERNA - JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64

**IMANOL ALTUBE**

**ELEKTRA  
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36  
Tfnoa: 79 10 60



**GARAGE NORTE, S.L**

**OPEL AGENTZIA OFIZIALA**

Basabe pasealekua - A-13 - Tfnoa: 79 62 65

# HIRUGARREN EGUNA


Hirugarren eguna kontetako, argazkiek, berbek baino askoz ere gehiago esan dezakete. Hona hemen egun hartako giroa:



• Goizeko zezenak, bat baino gehiago irartzartzeko balio izan zuen. Bestela galdetu banku ostean daudenei.



• Beste ausartago batzuk, zezenaren aurrean egoteko ez dute inongo beldurrik.



• Zezenak jende ugari erakarri zuen hirugarren egunean. Susto batzuk izan arren ez zen zauriturik izan. Hala eta guztiz ere, batenbatzuk, lurrean buelta batzuk eman behar izan zituzten. Zezenak, askotan barruan arineketan zebiltzanak alde batera utzita, kanpoan zegoen jendeari begiratzeko aukera izan zuen. Batek baino gehiagok barrera atzean beldurra pasatuko zuen.

**IRIARTE**

Umeen denda



DURANA, 8  
Tfnoa: 79 10 96



Aretxabaletako  
industrialdea  
Basabe poligonoa B-0  
Tfnoa: 79 62 80

LASA AGUILERA  
AHOLKULARITZA

Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 79 29 26

ARETXABALETA

ARETXABALETA  
ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA


# HIRUGARREN EGUNA



• Gau guztia lanean ibilita gero, sukaldariak begi honez begiratzen diote txahalari. 200kg pisatzen zuen txahalak, Gazetakoek 13 ordu behar izan zuten egiteko, Aretxabaletako lagun talde baten laguntzaz.



• Bazkari Herrikoian, Iturri-gorriko frontoian, umore ona ere ez zen falta.



• Itxura ona zeukan benetan txahalak. Gutxi sobratu zen, eta denok oso gustora urten zuten frontoitik. Denen komentarioa.....oso ona zegoela.



• 240 bat pertsona elkartu ziren frontoian

**KOMIKIA**





• Urak ere bere protagonismoa euki zuen hirugarren egunean. Herri Bazkaria bukatuta gero, bat baino gehiago etxera joan behar izan zen erropak aldatzera.



• Jendea benetan "alegre" zegoen gabeen. Txarangak jende ugari bildu zuen.



• Arratsaldean, Danok Bat Santurtziko txarangarekin, jendeak dantzan egiteko aukera izan zuen buruhandi eta erraldoien kalejirarekin batera. Oraingoan, buruhandi beteteranoak izan genituen.

Arratsaldetik goizeko 2,30ak arte, Ikuzka Gasteizeko txaranga izan genuen geurekin.



• Kuadrilek ez zuten umorea galdu, lau egunetan zehar gelditu barik ibili arren.

**MITARTE  
GARAI  
(JATETXEA)**

**ARIENTZAN**  
Tfnoa: 79 17 51



**IMANOL ARRAZOLA**

**KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1.º D  
Tfnoa: 79 93 55



**MUGARRI**

**DEBA GARAICO  
KONTZESIONARI  
OFIZIALA**



COURIER ERABILERA UGARIA  
Modernoak leku ugaria-  
turismorako egokia, lanerako  
eta aisialdirako


**A- Zer daukazu esateko Andramaixei buruz?  
B- Zer gustatu zaizu gehien?**



**Mirian Priego  
(Ikaslea)**

A.- Gauza gehiago egotea. Adibidez kuadrilen eguna eta txoznak.

B.- Bigarren gaua, kaleko giroa batez ere.



**Pedro Jose Olabe  
(Langilea)**

A.- Aktibitate kultural gehiago: antzerkiak, lehiaketak..Ekintzak leku diferenteetan egin, ez bakarrik plazan. Eta zezen gutxiago.

B.- Jendea



**Arantzazu Martinez  
(Langilea)**

A.- Kataluinako jaiek konparatuz hauek oso desberdinak dira, baina hauek askoz politagoak dira.


B.- Bazkari herrikoia eta arratsaldean urarekin bustitzea.



**Ekaitz Filarmendi  
(Ikaslea)**

A.- Egunero zezenak egotea eta barraka gehiago. Baina orokorrean ondo daude jaiak.


B.- Zezenak



**Fernando  
Lasagabaster**

A.- Orokorrean ondo daude, baina helduendako gauza gehiago ipiniko nuke.

B.- Norberaren ambientea.



**Aitor Aranzabal  
(langilea)**

A.- Andramaixak aldatzea txarto iruditzen zait, San Migelekin batera egin daitezke.

B.- 3. eguneko ambientea eta zezenak.



**Aitziber Urzelai  
(ikaslea)**

A.- Ondo daude, baina jendeak ez du asko parte hartzen.

B. Gabeko martxa.



**Nerea Arriola  
(ikaslea)**

A.-Aurreko urteetan baino hobeto. Nik suzko erruedetarako ordu fijo bat ipiniko nuke.

B.- Zezenak oso ondo egon dira.



**ARRIZABALAGA  
AROSZTEGIA**

Sukaldeko altzairu eta armairu enpotratuak

Tfnoa: 79 49 73

**ARETXABALETA**



Mitarte, 21 behea

Tfnoa: 79 79 79

**ARETXABALETA**





**ZIRT-ZART**

**ILEAPA INDEGIA  
ESTILISTAK**

**(ORDUA ALDEZ AURRETIK ESKATU)**

**ORDUTEGI INTENTSIBOA: 10etatik 6,30etara**

**GORBEA, 2**

**TFNOA: 77 09 44**

**ARETXABALETA**